


4. Josu Naberan: *Hitzen Koba: Euskararen jatorria eta eraiketa: erroak eta hiztegi etimologikoa*



Josu Naberan AEKn jardun zuen 10 urtez. Gero itzulpen talde batean (Kalegana Itzulpen eta Ikerketa Taldea).

Duela 5 urte edo *Sugearen Iraultza* liburua idatzi zuen, euskal mitoari buruzkoa, gaur eguneko eredu alternatibo bat eraikitzen laguntzeko.

Antzinako Euskaldunen Egutegia, ilargi egutegia zelakoa zen azalduz, baita konstelazioen kontuak, egun izenen eta zenbakien esanahia eta halako kontuak bilduz argitaratu zuen orain 3 urte.

Orain *Hitzen Koba. Euskararen jatorria eta eraiketa* liburua eta *Hiztegi Etimologikoa* argitaratuko du Durangoko Azokarako.

Mota ezberdinetako artikulak idazten ditu, antropologiaz batez ere. Une honetan, arlo honetan sarrien idazten duen idazlea dugu Josu Naberan.

Ofizios itzultzailea da eta besteak beste Klasikoak Sailerako itzuli ditu ingelesetik (Hobbes, Hume..) eta grekotik (Herodoto, Tuzidides..). Hitzaldiak ere ematen ditu, bai Egutegiari buruz, bai Mitologiari buruz, eta abar.

Harremanetarako: narra@euskalnet.net



Dordoinako kobetan hasi zen

Duela hiru urte, Dordoinako kobak ikustera egin nuen bidaian, hango leku-izenen %90 baino gehiago euskarazkoak direla konturatu nintzen. Eta orduz geroztik, Hitzen Koban sartu nintzen. Frantzia aldeko hamabost gune hautatu eta toponimia hura konputagailuan sartzeari ekin nion. Zerrenda horri Pirinio ingurukoa, Ebro bailarakoa eta Asturias, Kantabria eta Euskal Herrikoa bertokoa gehitu nizkion. Guztira, hogeita mila toponimo. Izenen itsaso horretan beti errepikatzen ziren konstante batzuk irteten ziren: erroak.

Euskara asmatu zutenek, erreken eta txorien hotsak imitatzeaz gain, lekuak izendatu zituzten lehenik eta behin. Goruneak ala bailarak ziren, konbexuak ala konkaboak, bustiak ala lehorrak... Gero, izen horiek gorputz atalei eta gainerako pertsona ezaugarriari ezarri zizkieten. Esaterako, *burua*. Lehenik eta behin, mendiari deitu zioten “bor”, “boroa”, “burua”, eta gero gizakiaren buruari; *bor-bor* onomatopeiak, seguruenik, sumendia eta laba izendatzen zuen hasieran, lapikoak asmatu aurretik. Horrela, leku izenek euskal erroen %80 inguru eman zidaten.

Orduan, erroak eta azpi-erroak sailkatzeari ekitean, kobaren iluntasunean itsu-mustuka nenbilean, Bittor Kapanagaren “Erro eta Gara” irakurri nuen, zorionez. Bittorrek hiru hizkuntza sistema bereizten zituen gure euskararen barruan (IZ, AR/UR eta GO), bakoitza bere aditzarekin, eta *izatasuna* nahiz *getasuna* izendatzeko modu propioarekin.

Maisuaren eskema lagun nuela, nire materiala sailkatzen hasi nintzen izatasuna/egintza/getasuna trinomioari jarraikiz. Horrela, sinonimia hirukoitzaren alorrean sartu nintzen. Bittorrek dio “hiru lehenhizkeraz osatutako hizkuntza” horrek “hirukoitzasun garbia” ageri duela. Hariari tiratuz, sinonimia horren zerrenda luze samarra osatu dut, eta argi ikusten da gauza funtsezkoenak izendatzeko hiru hitz (gutxienez) erabiltzen direla egungo euskarari: *bular/papar/golko*, *buru/kasko/kara*, eta abar luzea.

Eta, hizkuntzari gagozkiolarik, *hitz/ele/berba*, jakina.

- Lehenengo multzoak *hitz eta pitz* egiten daki; “iz” eta xistukariz betetako hizkuntza duenez, *pitza* dariola *hitz* eta *hitz*, antzinako txistularien antzera.
- Bigarren multzoak *bala-bala* egiten du ele. *Bala-bala*, hots, argi eta garbi edota guztien arreta erakartzeko moduan. “*Bala-bala*” dabil hortik notizia.
- Eta hirugarren multzoak *barra-barra* egiten du berba. Berba: “*aunque parezca y acaso sea voz extraña...*”, dio R.M. Azkue jaunak zuhurtziaz, zeren “*verbum*” latinezko hitz nabarmena baitu gogoan.

Hizkuntzalari *romanistak*, euskara latinaren betaurrekoekin aztertzen dutenak, ez dira Azkue bezain zurrak. Zalantza izpirik ere ez dute: berba, latineko *verbum*-etik, eta hala euskal hitzen eta hizkien zati handi bat, ehuneko berrogei edo hirurogeia, haien esanetan. Atzo goizekoa den hizkuntza –latina- gure hizkuntza aurre-indoeuroparraren paradigmaz jartzea, histori errorea bezain errore historiko galanta da. Latinak *verbum* eta hainbat berba beraren inguruko hizkuntzetatik jaso zituen, eta garai hartan Mediterraneo inguruan egiten ziren hizkuntzak, grekoaz eta Italiara etorri berri zen zelta indargeaz aparte (eta euskara piriniarraz aparte), berberea, iberoa eta hizkuntza kamitik ziren. Eta *verbum* ere, *iber-abo-era, handixe jaso zuen nonbait, grekoek *barbaros* jaso zuten leku beretik Libia inguruko Gorgona izugarriaren kontra ari zirenean.

Mitxelenak latinean bilatu zuen maiz euskal hitzen jatorria. Eta batez ere antzinako testu idatzietan. Baina “bide horrek ere bere mugak erakutsi ditu”, aitortu du Joseba Lakarrak



berak. Izan ere, latina gure lurraldeetara sartu baino hogeita mila urte lehenago sortu zen euskara egituratua -onomatopeiatik fonema-kateak metatzea eta abar-, eta neolito aroan euskararen hiru geruzak (piriniar-europarra, ibertarra eta mediterraniarra deituko ditudanak) bat eginda zeuden jada. Hizkuntza hori Europa osoan eta Mediterranioko ibar bietan egiten zen, geroago latina bera egingo zen legez.

Hortaz, grekoak nahiz latinak “euskararen substratuetatik” hartu zuten berba mordo bat. Arlo askotako berbak: nekazaritza -erromatarrak baino bost mila urte lehenago sortua Italian bertan-, itsasoko eta merkataritzako kontuak... Geroago ere, Inperio erromatarra erori ondoko latin berantiarrak berba pila hartu zuen geruza iberiar, bereber eta abarretatik, egungo gaztelan argi eta garbi ageri denez. Geruza haiek euskal familiakoak zirenez, nire aburuz, euskal hitz pila daukagu, fonetika aldetik apur bat aldatuta egon arren.

Hitzen Kobaren helburuetariko bat *romanismo* hori gainditzea da. Hortik gaztelaniazko eta latinezko hainbat hitz euskararen bidez dezifratzeko saioa (500 hitz inguru eman ditut dezifratutzat, baina askoz gehiago dirateke). Halere, ia ezinezkoa da romanismoari eta antroponomikoetan oinarritutako logika erratuari (leku izenak pertsona izenen bidez dezifratu nahiari) aurre egitea anekdotan oinarritutako gogoetarekin; euskal egituraren sistema oso baten bidez izan behar du argudioa. Eta, horrekin batera, erromatarren aurreko herrien eta hizkuntzen garapena kokatzeko, historiaren ikuspegi zabal bat aurkeztuz.

Hitzen Koban, euskararen erroekin batera, historia aurkezten da -edo “historiaurrea”, deitu nahi zaion moduan deitzen zaiola-, antropologian, arkeologian eta folkloean oinarrituta.

Kondaira mitikoek antzinako oroimena gordetzen dute. Holozeno aldira mugatuta (azken 10 mila urteak), duela 7 mila urteko lehortea (klima atlantikoa nagusi zenean), edota duela 6.000-5.000ko Uriola, klima azpi-boreala nagusitzen. Klima aldaketaren paradigma, ordea, Sahara da. Oihana laku handiz beterik izatetik basamortu bihurtzeraino zelan heldu zen milaka batzuk urteren buruan. Sinesteko ere. Baina hantxe daude, arkeologoek hondarpean aurkituta, antzinako sahararrek pintaturiko arrainak eta gizakiak igeri. Klima aldaketek eragin itzela izan dute gizataldeen mugimenduetan eta, beraz, hizkuntzen harremanetan.

Zibilizazio aldaketek ere izan dute eraginik, orobat, bizimoduan nahiz hizkuntzan. Lehortearen ondoriozko “indoeuoparren” eta semitarren emigrazioak eta nagusigoak hizkuntzaren beraren alderantzaketa ekarri zuen: *aba* eta *andere* kontzeptuak maskulinitatea, “aita” eta “gizon” izatera pasatuz hurrenez hurren (emakumearen zapalkuntzaren hasiera). Babelen mitoa, bestalde, orduan egiten zen hizkuntza aurre-indoeuoparraren nahaspila sistematikoaren oroipena omen da, hitzen forma eta zentzua apropos aldarazi omen zutenean.

Noiz sortu zen euskara? Edo, galdera zehatzagoa, noiz eta nola sortu zen euskararen katea mintzatua, ahoski bakarra ahoskatzetik bi edo hiru ahoski kateatzera? Nire ustez ez dauka misterio handirik: gizakia, bere irudimenaren jauzi kualitatiboan, kobak pintatzen hasi zenean. Ordura arte, onomatopeiez eta zeinu txit adierazgarriez baliatuko zen. Adierazkortasunean fina izango zen, gorputz osoa erabiliz bere sentipenak adierazteko. Baina irudiak zizelatzan edo pintatzen hasi zenean, beste adierazpide batez baliatzen hasi zen: irudi bidezko adierazpena, adierazpen sinbolikoa. Zer da besterik hizkuntza katea? Irudiak elkarlotzea, arte lanean bezalatsu. “Izar” esatean, IZ (argiaren adierazpena) eta ARRE (nabarmenaren sentsazioa) elkarlotzen ditu. Horra hor hizkuntzaren sorrera.



Baina, euskararena? Gure inguru zabaleko leku izenetan (historiaurrearen oroitzapena dugun toponimian) ez da geratu euskaraz bestelako hizkuntza aurre-indoeuroparren aztarnarik. Zeltek ere oso arrasto gutxi utzi dute, euren ahoskera bereziaren eraginaz kanpo. Asturias dugu horren adibide bat: fonetikan zelten eragina jaso du (asturianu edo bable hizkeran), baina ez, arean ere, leku izenetan.

Zelan eraiki zen euskara, eta zeintzuk izan ziren hastapeneko hitz erroak? Horretarako, herrien eta antzinako leinuen historian arakatu behar da (hala egiten dut liburuan, sapiens-sapiensaren mugimenduei buruz gaur egun nagusi den hipotesiari jarraitzen diodala).

Azkenez, Bittor Kapanagak ezinezkotzat jotzen zuena gauzatzeko saioa egin dut. Zera zioen Kapanagak: "Euskeraren erraietan ageri zaizkigun fonema bereziak, guztiak batera eta baktaxa bere esanahi behiñenakin hartzen baditugu, hauzia erabakiezina egiten zaigu. Nahasketa ikaragarri baten almareunetan trabaturik bezala aurkituko giñake" (*Erro eta Gara*, 30. orr). Alta, konputagailuaren laguntzarekin, posible da asmo hori gauzatea. Hor doa nire saioa, behin-behineko hipotesi gisara. Behin behinekoa, baina orokorra. Zeintzuk dira, zehazki, euskararen aitzin erroak? Hona hemen:

- | | | |
|---------------------|-------------|-------------|
| 1. IZ/IZAN | 21. ABA/AMA | 30 GOE/AGO |
| 2. GI, HI | 22. ARA/AR | 31 GU |
| 3. ZI | 23. EDU(N) | 32 UKU/AKHA |
| | | 33 KUR |
| 4. HA, D(S)A, AI(A) | 24. UR(A) | |
| 5. KAR | 25. ANU | 34 OR |
| 6. SU | 26. LEA | 35 DOR/ORD |
| | | |
| 7. AUZ/AZU | 27. ALE | 36 URRU(I) |
| 8. IN/EI/IKE | 28. ELI | 37 ARRE |
| 9. IRA/IL, AN/EN | 29. AL(A) | 38 ER |
| 10. DSO/JO | | 39 (A)GER |
| 11. LO/LOHI | | 40 (E)GIN |
| 12. BA(DA) | | |
| 13. BI | | |
| 14. ILU | | |
| 15. LAU | | |
| | | |
| 16. BUR(U) | | |
| 17. ATS(E) | | |
| 18. ATZ | | |
| 19. AHO/OTS | | |
| 20.ON/UNE/UTS | | |

Berrogei baino gutxiagora bil daitezke, jakina. Esaterako, hiru lehenengoak IZ sailera bilduz, H hasperendunak elkartuz, GO/KO errodunak batuz edota RR sailekoak batera ekarriz. Orduan 25 inguru genituzke. Baina hori gutxienekoa da.

Kontua da jatorrizko erro horien konbinaketatik erator daitezkeela euskal hitz guztiak. Bi mila eta bostehun hitzen hiztegi etimologia egin dut (oinarrizko hitzena), eta badirudi funtzionatu egiten duela.



Euskaldunen jatorriaz: Gravettetarren alaba euskalduna

Bestalde, Stephen Oppenheimerrek errebelazio handi bat egin digu: Gravettetarrek alaba bat izan zutela Pirinio aldean, alaba euskalduna: *Solutre kultura*.

Hala diosku Oppenheimer irakasleak. Azken Glaziazio Gorena (23.000-22.500) amaitzeaz zegoela, Solutre kultura agertzen da Europan. Kultura hau harrigarriro hedatu zen duela 17.000 inguruan; haien arte ederra eta teknika bikaina mirets dezakegu Pirinio inguruko nahiz Asturias eta Kantabriako hainbat kobatan. Gune batzuetan, batez ere Castillo, Pendo, Santimamiñe, Aitzbitarte, Ekain eta Dordoina aldean, populazioa hazi egin zen nabariki, teknika eta artea bere puntu gorenera iritsi zen (Lascaux, Altamira, Santimamiñe), eta hortik aurrera Madaleine kultura deituko zaio.

Esan bezala, Oppenheimerren aburuz, Solutrea (V faktorea) bertan sortu zen. Ildo genetikoez ari delarik, Gravette kultura HV markatzaile femeninoarekin identifikatzen du, eta Don aldetik aurretixeago etorri zen Kostienki kultura, berriz, *Ruslan* markatzaile maskulinoarekin. Hona hemen zer dioen (*Los Senderos del Edén*, 246. orr.):

“V, beraz, Euskal Herrian sortu zen, Glaziazio Gorena igaro eta handik laster. Haren arbasoa (aurre-V) 26.400 urte aurreragokoa da gutxi gorabehera. Aurre-V hori Balkanetan eta Transkaukasian aurkitzen da oraindik, horrek ez duelarik eragozten haren jatorri ekialdetarra.

Ildo genetiko honek glaziazio ostean Ipar Europarantz izan zuen hedapena, berriz, solutre kulturaren oinordeko den madaleine jendearen emigrazioarekin lotzen dute (duela 16.000 urte inguruan). Torriani eta beste batzuen ustez, esaterako, emigrazio horrexetan datza V faktorea saamien artean nagusi izatearen arrazoia.”

Hizkuntzen jatorria eta herrien jatorria

Antropologia aldetik berri asko, beraz. Baina hizkuntza aldetik? Antropologo batek ere ez dizu ezer aipatuko orduko hizkuntzez. Euskarak, berriz, genetikak bezain argibide onak eman diezazkigukeen sonema arrastoak ditu, nik uste.

Batetik, “i” eta xistu egiten duen hizkera (xistukarien artean, ZI, IZ eta abar). Bestetik, aurrekoaren guztiz kontrakoa, **hizkera guturala**, goe-gara-uku-egin,... eta, seguruenik horrekin batera, rr hizkera. Hirugarrenik, **hizkera hasperenduna** (aho-hao..., eta agian buru-behe-bade). Eta, azkenik, **VCV hizkera** (ama-ara-edu...).

Hizkuntza beraren erregistroak ala goian ikusi ditugun enda ezberdinen eraginak? Nire ustez, batik bat, enda ezberdinen eraginak. Egin dezagun eztabaida hasteko moduko hipotesi hau: “i” eta xistu, auriñatarren hizkera litzateke; eztarrizko eta erredun hizkera, aldiz, kaukasiar-ibertarrena (batik bat Gravette taldeak ekarria); hizkera hasperenduna, bertoko solutre kulturaren sorkuntza, baita agian *buru-behe-bada...*; eta VCV, azkenez, glaziazio osteko mediterraniarren ekarpena (saharar jatorrikoa edo ekialdekoa, ez dakit esaten).

Berbereak

Baina nondikoa da berbere jendea, hau da, ATER kultura paleolitikoa? Stephen Oppenheimer antropologoak argitu berri digu *Los Senderos del Edén* liburu ederrean. “Zenbaitetan *berber motiboa* deitzen zaion Ipar Afrikako ADNmt ildo autoktono zaharrena Ekialde Hurbiletik iritsi zen, duela 30.000 urte inguru, mendebal Eurasiako



(Europa+Ekialde Hurbila) adar nagusitik bereiziz”.

Aurrerago, zera dio Stephanek, U6 faktore genetikoaz diharduelarik: “Berbereen ezaugarri nagusi delarik, U5 bezain zaharra da (50.000 urte), eta datu honek zera iradokitzen du: U5 (Europara sartu zen kromagnona) Ekialde Hurbiletik Turkiako ipar-mendebalderantz eta handik Europara zihoan bitartean, U6 Mediterranioko kostaldean barna joan zela Ipar Afrikara. Esploratzaile haien arrasto fisikoak izan daitezkeenak aurkitu dira. Haua Fteath aztarnategian, Libiako kostaldean, Aitzin Goi Paleolitoko erremintak, duela 40.000 urtekoak, aurkitu dira.

Datu hauek oso garrantzitsuak ditugu euskararen misterioak argitzeko. Sapiens-sapiensaren sehaska den Ekialde Hurbilaren mugan dagoen Zagros mendialdetik omen gatoz euskaldunak nahiz berbereak. Eta hori ez da bakarrik Oppenheimerren iritzia. Elisabeth Hamel historialariak, Theo Venneman hizkuntzalariak eta Peter Foster biologoak, euskaldunez hitz egitean, zera diote: “Europar *tipo* aspaldikoenak Mendebal Asiako hegoaldean sortu ziren, nonbait, duela 80 eta 50 milurtekoen bitartean” (*Investigación y Ciencia*, 2003ko urtarr.)

Hortaz, euskararen nahiz berberean kontserbatzen diren hitzak (*aita*, *zi*, *urru* eta horrelakoak) lirake arkaikoenak. Eta euskararen, berberean eta Kaukasoko hizkuntzaren batean erro berbera aurkitzen badugu (*giza*, *gu* eta horrelakoak), badakigu nondik datorren: Zagros mendialdetik.

Iberoak

“Iberoei buruz idazten den guztia idatzi arren, oso gutxi dakigu haien kultura eta hizkuntzaz”, dio Estornesek. Nire ustez, ibero herri bakar batez baino iberiar kulturguneez hitz egin beharko litzateke. Izan ere, kultura almeriarrak gain, ekialdeko eragina (Egeokoa, adibidez), ibero-mauritaniarrena eta abar jasotako Iberiako edo Hispaniako (*iz-bania, penintsula) populazio indigena hura asko bereiztu baitzen eskualde batetik bestera. Askazia indigena honen hizkuntzak, batzuen eta besteen erroak jasota, luzaro iraun zuen eta idazkera baten bidez utzi digu bere testamentua; beharbada Saharan bertan sortu eta gero Feniziara esportaturiko idazkera, eta ez alderantziz.

Baina zer esan dezakegu jatorrizko iberoei buruz? Herri guztiak bezala, harreman kultural batetik sortu ziren. Aztarna arkeologikoen arabera, duela 20 eta 12 mila urte bitartean, Andaluziako Itsasartearen (Tarte-zi-o) inguruan solutre-madaleine kulturako taldeak bizi ziren; eta, aldi berean, ipar Afrikako ibarrean, ibero-mauritaniarren taldeak. Seguruenik harremana izan zuten. Glaziazio garai hartan, itsasoa askoz baxuago zegoenez, kostak bi talde ibertarren begi eremuan aurkitzen ziren. Harremana izan bazuten, lehen aldiz berraurkitu ziren 30 mila urte lehenagoko senidetasuna zuten bi hizkuntza: piriniar-europarra eta berbereen arbasoena. Topa egiteko moduko gertakaria.



LIRIAKO ONTZIA

“Las diferencias (entre euskera e ibérico) no serían mayores que las existentes entre cualesquiera dos lenguas latinas”, dio Xaverio Ballester, Valentziako Unibertsitateko hizkuntzalariak. Eta hizkuntza bion senidetasuna onartu nahi ez dutenek ere zera aitortzen dute: haien fonetika nahiz gramatika oso antzekoak direla. Eta hainbat berba iberikok (alor, balce, bilos, sacar, baister, beles, enne, ilun, gere, umme...) euskararen airea duela. Zerk eragozten du, orduan, senide hurbilak direla baieztatzea? Egungo euskaldunak ez garela gai testu iberikoak ulertzeko.

Ikus, adibidez, irudi liluragarri hori, testu eta guzti. Dagoeneko badakigu zeinu horiek irakurtzen, Gomez Moreno granadarrak dezifratu baitzituen, ofizios hizkuntzalari ez zen arren; baina irakurtzen jakin arren, halako testuak ezin izan ditugu ulertu. Zergatik? Euskararen erroak zeintzuk diren ez jakitearren. Zeren horiek ezagutu gabe, oso zaila baita berba kateatu iberikoak zehazki bereiztea eta euskararen bidez ulertzea.

Laster argitara emango den liburu batean, erro horiek identifikatu eta sailkatuta aurkeztuko ditut. Honako hauek dira:

- jatorri pirinio-europarrekotzat jotzen ditudanak: IZ, GI, ZI, HI, NI, HA, AI(A), KAR, SU, AUZ, AZU, IN, IL, AN/EN, ON/UN, DSA/DA, DSO/JO, LO, BA, BI, ILU, LAU, BUR(U), AHO, ATS, ATZ, OTS
- jatorri kaukasiar-berber ildokoak: GOE, GU, UKU, KUR, OR, DOR/ORD, URRU(I), ARRE, ER, (A)GER, (E)GIN
- jatorri mediterraniokoak: AMA, ARA/AR, EDU, UR, ANU, LEA, ALE, ELI, AL(A).



Erro horietarik erdia baino gehiago leku-izenetan dago. Gutxiagora bil daitezke, baina ez asko gehiago erantsi, nire ustez (IRA, IKE/IDE eta besteren bat akaso).



Erro horien konbinaketatik datozke euskal hitz guztiak, eta halaxe aurkeztuko dut hiru mila berba inguruko hiztegi etimologikoa, lehen hurbilpen gisara. Adibidez, BEHE *buru-e litzateke, HARRI *kar-ira, eta horrela. Eta erro bakoitzak, higitu ahala, bere aldagaiak eta atzizkiak sortu ditu: AUZ(O), adibidez, os, so, -tzu, -tz eta abar bilakatu da; eta horren kontrakoa den AZU(A), berriz, aza, -azu, -tza/txa/ta. Beraz, atzizkiak erro horien baretik sortu dira, eta ez, dioten bezala, latinaren maileguz.

Orain, arma horiek eskutan, egin dezagun froga Liriako (Valentzia) ontzi batean duela ia 3000 urte idatzi zuten “gerlari iberoaren” testuarekin.

Hona hemen testu ibero-tartesikoa gure alfabetoaren arabera:

BASARTE:BONANDITE:NMABARTE:BORDEBARA:GARESIRKUEGIAR:EDURTEEGI
AR:

DERDETIS:KARBA:BEGOR:BANIR:ANKUTURIRADIAR:BELAR:BANBERBO.

Nik ere oraingoan Jorge Alonsoren antzera irakurriko nuke; dena den, testu hau irakurtzea nahikoa erraza da, berez puntuazio zeinu asko daukalako: “basarte bor(o) andite, nauarte bordebara, garesirku egiar, edurte egiar, derdetis karba begor banir, ban kutur iradiar belar, ban berbo”.

Eta era honetara dezifratu: “BASARTE BOROANDI ATE(AN), NAUARTE BORDEBARA(N), GANE SIRI-UKO EGIAR, EDURTE EGIAR, DERDETIS KARBA BEHOR BANIRA, BAN KUTUN IRADIAR BELAR, BAN (I)BERBORO”. Euskara da, dudarik gabe:

- o *boroandi ate* mendatea da, buru/boroa/boa mendiari deitzen baitzaio Europa osoko toponimia zabalean
- o *nauarte borde bara*, berriz, “zabaleko borda barrena” litzateke gaurko euskaraz; *bara* *behe-ara, barrena da; *borde*, *boro-ire, menditik eratorria, mendi magalekoa (eta hortik borda etxea ere)
- o *sirku* *siri-uko hitzaren laburdura dirudi (ganeak euria egiteari uko), gaur egun “siku” hitzean geratu dena
- o *egiar...egiar*, “egitean...egitean” dateke, *egi-an aditz bikoitzarekin (jakina da n/r aldaketa ematen dela, eta iberierak rr duela gustuko)
- o *ban...ban* errepikak “bai...bai” esateko modua dirudi
- o eta azkenik, *kutun iradiar belar* (iradi kutuneko larrean) *derdetis karba behor banira*. Hortxe gakoa. *Derdetis* misteriotsua aditza da, dudarik gabe: *dardarizan*, dardarrez irrikatzen, seguruenik; *karba* *gara-boa litzateke, belar landare buruduna (euskarak nahiz gaztelaniak kontserbatu duen hitza); eta *behor banira* esaldiak “behor guztiak” esan nahi du (banira=*bade-ira edo *bana-ira, banakotik eratorritakoak)

Beraz, testu honek zera adierazten du: jada giro ez denean, behor orok garauna irrikatzen duela, dela iradi kutunean, dela iberburuan. Kontuan izanik iberoen imajinarioan zaldia beste munduarekiko bitarteko numena dela, ontzi ederrean idatzitako testu hori paradisua aipu duen epitafio gisakoa genuke, agian

Horrela ba, poema baten aurrean gaude: gerra jantzirik ez daukan gizaki hilkorra Josafateko Zelaira bidean dago, igaroaldian gerta dakizkiokeen arriskuei aurre egiteko sastakai ibero soil bat eskuan duela. Gerrarekin zerikusirik ez duen poema eder bat.

Testua zeinu tartesikoz idatzita dago; beraz, Guadalkibir aldean zegoen Tartesso hiritik esportaturiko ontzia litzateke, beharbada hileta-ontzia, okasiorako idatzitako testu aproposarekin.

